

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Sestaoko Udala****Udal Musika Eskolara eta Udal Euskaltegira joateagatik ordaindu beharreko Prezio Publikoei buruzko Ordenantza Arautzaileak aldatzeari buruzko erabakien jendaurreko erakustaldia.**

Udalbatza Osoak, 2019ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, besteak beste, Musika Eskolara joateagatiko Prezio Publikoaren eta Udal Euskaltegira joateagatiko Prezio Publikoaren Ordenantzetan zenbait aldarazpen onartzea erabaki zuen:

Jakinarazi egiten da, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005. Foru Arauaren 16. artikuluan jasotakoaren arabera, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hogeita hamar eguneko epean interesatuek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Jendaurreko erakustaldi hori igaro eta inolako erreklamaziorik aurkeztu ez bada, goian adierazitako behin-behineko erabaki hori behin-betikoz onartutzat joko da.

Sestaon, 2019ko maiatzaren 7an.—Lehen alkateordea, Ekonomia, Ogasun eta Ondarearen Sustapenerako ordezkaria